

**2024.12.13 Bizkaiko 2025. urteko
Aurrekontu Orokorrei aurkeztutako
osotasunezko zuzenketa eskeen eztabaida
Jesus Lekerikabeaskoa Arrillaga**

**13.12.2024 Debate de las enmiendas
a la totalidad a los Presupuestos Generales
de Bizkaia para 2025
Jesus Lekerikabeaskoa Arrillaga**

Eskerrik asko mahaiburu andrea. Ahaldun nagusi andrea, ahaldunok, batzarkideok, egun on danori. Urteroko zeregina dogu abendu erdian, hurrengo urterako aurrekontuen eztabaidari heldutea, Batzar Nagusi honeetan. Gaurko osokoa, dakizuen moduan, Bizkaiko Foru Aldundiak 2025rako aurkeztu dauan aurrekontuagaz konforme ez dagozan alderdiak berau atzera botatzeko egin daben eskariaren ganean eztabaidatu eta bozkatuteko egiten da. Hemen gagozan batzarkide gehienok hori onartuko bagendu, gaur bertan aurrekontuak atzera botako litzatekez eta 2025. urtea aurrekontu barri barik hasiko geunke; 2024koa luzatu beharko gendun, horrek dakarren guztiagaz. Baina, gaur egun, Ganbara honetan gagozan batzarkideen gehiengoak ez dogu batzarkideen gitxiengoak egiten dauan irakurketa bardina egiten. Partidu Popularrak eta Elkarrekin Bizkaiak, aurrekontu honeek atzera botatzea eskatu dozue, eta guk ez dogu hori babestuko. Guk geuk aurrera jarraituko dogu 2025erako aurrekontuakaz. Eurok onartzeko babes nahikoa badogu, Bizkaiko Batzar Nagusi honeetan aurretik landutako adostasuna geure alde dogulako.

Gu hauteskundeetan aurkeztu ginan herrigintzarako proposamen bategaz, programa bategaz. Ondoren, herritarrengandik jaso gendun babesaren arabera, gobernu lanetan edo oposizioan gagoz; herritarren borondateak jarri gaituen lekuan. Ondoren, bizkaitarrengandik jasotako babes hori zabaldu gendun beste indar politiko bategaz adostuz, Legealdi Programa bat landu zan, legealdi plan hori aurkeztu eta, ondoren, emon zan berbea betetzen jarraituteko, urtero, urtero aurrekontua onartu behar dogu. Legealdirako planak eta egunerokotasunak eurekaz dakarrezan erronka guztiei aurre eginez. Hori da 2024an egin genduna eta hori da 2025ean, 2026an eta 2027an egingo doguna.

Bizkaitarren aurrean emon zan berbea eta konpromisoa betetzen jarraituko dogu, egunero egunero gizarteari entzunez eta beharризanei aurre eginez. Lidergoagaz, bai jakina; gizarteak emon eta kentzen dauan lidergoagaz. Esperientziagaz, urteetan administrazio hau kudeatzeak emoten dauan esperiantziagaz, eta jarrera koherenteagaz. Besteei eskatuten deusaguna guk, gobernuan edo kudeatzen dogun lekuen eginez, proposamen eta eskari populista eta komenientziazko jarreretan jauzi barik, epe laburreko jokalaria izan barik. Gure erabagiak

gizartearen beharrianetara moldatu bai, behar dan guztietan moldauko doguz, eta ezelako konplexurik barik, baina, jarrera aldakorragaz ez, arinkeriaz ez, haizearen norabidearen arabera edo momentuko interes partidisten arabera ez. Gu hori gara, baina hori izanda eta hori esanda, oposizinoko alderdiak errespetuz tratetan doguz. Argi dogu gizarteak aukeratutako ordezkariak merezi daben errespetuagaz tratau behar dirala. Gizarteak aukeratutako ordezkariak ez errespetatutea, guretzat, gizartea bera ez errespetatutea dalako.

Aurrekontu honetarako, alkarrizketea bai egon da, oposizinoko alderdi guztiokaz, Etxanobe andrea buru dala, danakaz batu ginan aspaldi. Aurtengo kasuan ganera, sekula baino arinago, aurrekontu-proposamena BBNNetan aurkeztu orduko. Alkarrizketea egon da, alde guztiakaz, eta uste dot gure aldetik behintzat, zintzotasunez izan dala, guztiokaz. Gugaz negoziatzea ez da gatxa, ez gara bape konplikauak, premisa gitxi daukaguz, baldintza gitxi jarten doguz negoziazioan, eta danon aldetik borondatea dagoanean, akordioetara helduten gara. Baina baldintzetatik kanpo bazabilze, ez daukagu adostasunik, eta aurrera goaz aurrekontuen tramitazioagaz. Bizkaitarrek gugandik hori eskatuten dabelako, zerbitzuak emoten jarraitutea, zerbitzuak hobetzen jarraitutea, eta jendearen bizimodua hobetzen jarraitutea. Gizarteak hori nahi dau eta aurrekontu honeek horretarako dira, pertsonen bizimodua hobetzeko eta, gehien bat, laguntza behar dabenari (ahulenak, zaugarritasunean dagozanak...) lagundu ahal izateko.

2025ean Bizkaiko Foru Aldundiak 2.174,3 milioi euroko aurrekontua izango dau; 1.650,3 milioi izango dira, departamentu ezbardinek zerbitzu eta inbersinoakaz aurrera egiteko. 2025ekoa izango da, BFAk inoiz izan dauan aurrekonturik altuena. Aurrekontu honen helburua edo izaera berba gitxitan deskribau behar bada, izaera soziala eta lurralde kohesino berbak erabiliko nebazan, ahaldun nagusiaren berbak erabilita.

1.650 milioi euroko aurrekontu horretatik 778 miloi inguru, pertsona zaugarrientzat, gehien behar dabenak edo baztertuen dagozanak kontuan izateko bideratuko dira. Gizarte ekintzako aurrekontua (729 milioi), %5,5 igo da aurreko urtetik eta aurrekontu erabilgarri osoaren %44,2a helburu honetara bideratuko da. Pertsonak, adinekoen zentroetarako 243,1 milioi izengo dira; desgaitasuna daben pertsonak kontuan daukazalako, eurei harrera egiteko 101,4 milioi daukaz; babesgabetasun egoeran dagozan umeentzat edo egoteko arrisku larrian dagozanentzat, 71,25 milioi bideratuko dira, arreta, babesa, formakuntza... bizi proiektu bat eukiteko eskubidea daukelako edo aukera behar dabelako. Gu berba hutsetan ez garalako geldituten, baliabideak, errekursoak eta konpromisoa eskaintzen deuseguz. Pertsonak dira aurrekontu honen helburu, eta euren etxe giroan ahalik eta luzaroen egon nahi daben nagusiak be bai. Familia giroan zaintzen laguntzen dabe aurrekontu honeek, 108,2 milioi bideratuko ditu horretarako. Zerbitzu publikoak, baina zerbitzuen kalidadea lehentasun modura ezarriten daben zerbitzu publikoak, hori da

bestelako helburuen gainetik Aldundi honen helburua, eta ondorioz, aurrekontu honek be pertsonen bizi kalidadea hobetutea dauka helburu nagusi modure.

Aurrekontu hau ez bada onartuten, gaur hemen atzera botako balitz, Gizarte Ekintzarako bideratzen dan kopurua 40 millioi txikiagoa izango litzateke 2025ean. Guk ez dogu hori onartuko; gitxien daukanari gehiago lagundu eta gitxiago eskatu behar jakolako, hitzez eta ekintzez. Arlo guztietan, euskerea, kultura eta kirol arloan be bai, proiektu garrantzitsu asko dagoz; danak azaldu ziran batzordeetan eta ez dodaz barriro esango, baina, bai ekarri nahi dodaz hona, batzordean bertan ahalduak aitatutako lau helburuak: bizi kalidadea hobetutea, gizarteratzea, aukera bardintasuna eta balioen transmisinoa. Lerro horregaz bat gatoz gu eta bat datoz aurrekontu honek be. Aurrekontu honeetan emakumezkoen kirola bultzatuten da, diru-laguntza bereziak bideratuz, goi-mailako kategoriei, eskubaloian, saskibaloian, errugbian eta txirrindularitzan. Goi-mailako kirola, bai; baina bai eta eskola kirola be, txikienakaz eta federatuakaz ondoren, emakumeen parte-hartzea aktiboa eta bardintasuna bultzatuteko programak jasota dagoz aurrekontuan. Kirol egokitua eta aniztasun funtzionalaren esparruan be partidak jasota dagoz.

Pertsonak, beti pertsonen bizi kalidadea hobetzen; bardintasuna helburu trasbertsala dalako, bardintasun politikek euren tokia eta baliabidieak daukiez hemen, atzera bota nahi dozuen aurrekontu honetan. Urtero, urtero lez, horretarako diru partidak handituten doaz. Enplegu, Gizarte kohesino eta Bardintasun departamentuan aurren 87 milioi dagoz horregaz lotuta. Baina pertsonak esaten dogunean, zaurgarriak, nagusiak, umeak, inklusinoa, bardintasuna eta gitxien daukenak, lehentasuna dirala bistakoa da. Baina aurrera begira, epe ertain eta luzera begira be, beharra egitea jagoku, zerbitzu onak emoteko eta aberastasuna sortzeko. Hor be, Aldundiaren nahia, aurrekontu honetan ikusten dan modura, pertsoneri lagundutea da, bizi proiektuetan lagundutea, gero, bizi proiektu horrek, eta pertsona horrek gizarterako lagungarri izengo diralako. Arlo guztietan, sormena lagunduz era askotara eta esparru estrategikoak finantzazinoa emonez. Artisan sektorea bultzatuteko 375.000€ kontuen hartuta dagoz. Dendari txikiak, atzean ez uzteko, teknologia barrietarako 500.000€ bideratuko dira.

Lehen sektorea, Aldundi honentzat ezinbestekoa da eta lehentasunezkoa dalako, abeltzainak, nekazariak eta basogintza kontutan izen behar doguz, hitzez eta ekintzez. Horren eredu, Suspertze Plana daukagu, azken boladan asko entzuten dogune. Horren atzean, berbetatik aparte, alkarlan asko dago eta aurrera begira be izango da. Sektoreko ordezkarien eskutik alkarlanean dabil Aldundia. Proposamen idiliko, utopikoen inguruen aditzea oso ondo dago, baina horretan aritu behar dogu, politikagintzan hankak lur gainean jarriz, 2025eko aurrekontuak horretarako partida eta laguntza zehatzak daukaz. Nekazaritza eta ingurumen departamentuek beste batzuen artean erronka horrerri aurre egiteko 77,6 miloi erabiliko ditu.

Beste sektore batzuetako pertsonentzat, Ekonomia Sustatuteko sailean, 80,5 miloi proposatuta dagoz. Pertsona ekintzaileak eta sortzen diran enpresa txikien aldeko ahalegina egin behar dalako, euren ibilbide osoan lagunduteko dirulaguntzak eta balio erantsidun zerbitzuak eskaintzeko 9,6 milioi jarrita eta beste 2,8 milioi arrisku kapitaleko funtsen bidez laguntzeko aurreikusita dagoz. Industria eta berari lotutako zerbitzuak sendotu beharraz be, danok gagoz ados, lehentasunezkoak dira. Baina honek be pertsonak behar dabez erronka barriari aurre egiteko, eta gehien bat STEM talentua behar dabe; horretarako, 6,6 milioi euro erabiliko dira aurrekontu honetan, batzuk atzera bota nahi dozuen aurrekontu honetan.

Honarte esan dodazan berbak eta datuak, batzuk atzera bota nahi dozuen aurrekontu honen izaera sozialari lotuta izen dira. Gustauko jatan benetan jakitea, oposizinoko alderdiok, diskurtsotik aparte, aipatu dodazan kolektibo, arlo edo sektoreetatik, zeineri laguntzeaz ez zagozen konforme. Susmoa daukat, egia esango bazendue, danakaz ados zagozela. Izaera soziala aurrekontu honen eta BFAko gobernuaren ezaugarri garrantzitsuena da, baina beste ezaugarri nagusi bat, lurralde kohesinoa da. Kohesino hori be, zeharkakoa da eta departamentuek euren aurrekontuko parte garrantzitsu bat horra bideratuten dabe. Sustapen Ekonomikoko sailaren barruen, horren adibide garbienak, Bizkaian martxan dagozan bost plan estrategikoak dira, fase desbardinetan, Enkarterri, Ezkerraldea-Meatzaldea, Busturialdea, eta Debabarrena eta Aiaraldea, guri jagokun parte. 47 udalerri dagoz Plan Estrategiko honeetan, baina niretzat garrantzitsua da baita Bizkaia Orekan Sakonduz ekimena eta handik bideratuko diran 3,2 milioi euroak. Eskualde guztientzat, tokian tokiko garapen agentziakaz, eta Udalakaz, eskualde bakotxeko industria-enpresa eta zerbitzu aurreratuen ahalik eta kopuru handienara helduteko helburuaz. Eskualdeeri aukera emoten jake euren erronka estrategikoak eta gobernantza ereduari buruz hausnarketak egin eta adostasunak topetako. Esan mesedez, hemen nor dago holako neurrien kontra?

Hori guztia eta beste gauza asko dira lurralde kohesinoa, baina ezerk lotzen badau lurralde hau, errepideak eta garraioak dira. Garraioaren barruan, metroa bai eta bizikleta be bai; biak, erabiltzaile kopuruen errekorreko zifretara heldu dira urte honetan, baina lurralde guztiari buruz berbetan gabilzanean, bereziki Bizkaibuse daukagu kontutan, eskualde batzuetan berau da garraio publiko bakarra. Bueltan bota nahi dozuen aurrekontu honetan Garraio, Mugikortasun eta Turismo sailek 208 milioi daukaz aurreikusita.

Bideak, errepideak... dakizuen modura, Azpiegitura eta Lurralde garapeneko departamentuaren zeregina dira. Kopuruari jagokonez, sail hau da aurrekonturik handiena daukienen artean bigarrena, 246,7 miloi euro kudeatuko dira hemendik. Aurrekontu honen parte garrantzitsuena (120 milioi inguru) Bizkaia guztia lotzen daben errepideen mantentze-lanetara bideratzen dira. Egunero bide horrek erabilten doguzan bizkaitarrok eta bizkaitar ez diranak, garraio publiko edo

privatuen, era seguruen mugitu gaitezane sare guztitik, aurrekontu honen bitartez bermatzen da, segurtasuna, garbitasuna, argiteria, mantentze orokorra... (1.300 km inguru) Bizkaiko herri guztiguztietan. Mantentze lanetatik aparte, orain arte modura Bizkaiko errepide-sarea hobetzen jarraitu behar da, eta horretarako dagoz aurrekontu honetan jasota. Batzuk atzera bota nahi dozuen aurrekontu honetan jasota beste batzuen artean Enkarterrirako, Traslaviña-Turtzios eta La Herrera-Malabrigorako partidak, lizitazioak hasi ahal izateko, edo Lea-Artibairako, Markina-Xemeingo saihebidetaz jarraituteko 11,6 milioi jarrita. Eskualdeetan proiektuak egiten jarraituteko edo burututeko 7 miloi eurotik gora bideratuta. Adibidez, Bidebieta-Sollube, Elorrio-Kanpazar, Errekalde, Ermua gauzatzeko. Honetatik, zein nahi dozue kentzea zuen zuzenketak onartzeko orduen? Ze, guztiok egin dozuezan zuzenketa askotan, partida honetatik kendutea proposatzen dozue.

Bizipistak be aitatuko dodaz, ze horreeri be uste dot danok oneritxia emoten deusegula. 41 milioi euro eskualde desberdinetan: itsasadarreko bulebarra bai, eta Erandio eta Barakaldo arteko pasarela be bai jasota dagoz. Baina baita be Larrabetzu-Erletxes, Erletxes-Boroa eta Alonsotegi beste batzuen artean. Guk holan ulertuten dogu lurralde kohesinoa, errepideetan mantentze lanak egiten eta hobetuten jarraituz, garraio gero eta egokiagoa eukiteko lana eginez, bizikletaren erabilpena bultzatu, zabaldu eta horretarako azpiegiturak errealitate bihurtuz.

Eta, zelan ez, bukatzen joateko, Aldundi honen beste ezaugarri dan bategaz: Udalei lagundutea eta eurengandik hurbil egotea. Nik beti aldarrikatuko dot udal-autonomia, eskubide eta betebeharrakaz, gauza biak, beti. Argi daukat BFA eta Udalak alkarren eskutik doazela eta holan bermatuten da be bai, lehen aitatutako ildo soziala eta lurralde kohesinoa. Udal finantzazinoa be hor dago, ondo doanean inok ez dau aitatuten. Gaur, hemen, ez dot ezer entzun, ondo doan seinale garbia da hori. Udal finantzazinoak inoiz euki ditu momentu txarrak, eta aurrerantzean be gertatu ahal da. Baina gaur egun, errekorreko zifretan dago 1.170 miloi euro aurreikusita dagoz, Bizkaiko 113 Udalen finantzazinarako. Gaur egungo erispideen arabera, Udalena da diru hori, eta eurek jasoko dabe.

2025eko aurrekontu-proposamena, nire ustez, zintzotasun faltagaz eta beti be era interesatuen kritikau dozuez oposizino hiru alderdiok, adostasunetara heltzeko alkarriketak martxan euki doguzenien be bai, eta batzuk gaur bertan be atzera botatzeko eskaria defendatzeko orduan ez zaree guzti fin ibili. Bizkaiak ez dau merezi, bizkaitarrek ez dabe merezi, eta horregaitik, guk ez dogu gaur hemen inolako osotasunezko zuzenketarik onartuko.